

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ ASTIGARRAGA DBH

### DBHren aldeko plataformak, asanblada gaur

Asanblada deitu du gaur, DBHren aldeko plataformak. Ohi bezala, musika eskolaren ondoko aretoan egingo dute, arratsaldeko 19:00etan hasita. Antolatuko dituzten hurrengo ekintzen berri emango dute. ||

## ■ ASTIGARRAGA MUSIKA

### Gaur hasiko da Musikoterapia

Adineko pertsonentzat, Musiko-terapia jarri du martxan, Norberto Almandoz musika eskolak. Eta gaur izango da aurreneko saioa, 11:00etatik 12:00etara, Arrobi-tulo 41eko lokalean. Aurrez eman behar zen izena. ||

## ■ HERNANI BITERI

### Ipuin kontaketa gaur, Lur Kortaren eskutik

Ipuin kontaketa saioa izango da gaur arratsaldean, Biterin. Lur Kortak eskainiko du, eta bi saio izango dira: 3-4 urtekoentzat aurrena, 17:30etan; eta 5-7 urtekoentzat gero, 18:00etan. Gonbidapenak, liburutegian. ||

## ■ HERNANI AMHER

### Inmigrazineak, bigarren zita bihar

Bihar jarriko dute bigarren pelikula, Amherrek antolatutako Inmigrazinea zikloaren barruan. *La jaula de oro* filma izango da, Diego Quemada-Diezena. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da, Biterin, eta doakoa da sarrera. ||

## ■ HERNANI ERABAKI

### Proposamenak bozkatzeko bilera, Latsunbeberri

22 proposamen iritsi dira, Erabaki Hernani aurrekontu partehartzaileen bozkatze-fasera. Eta udal eraikinetan, auzo elkarte postontzietan edo *erabaki.hernani.eus* web orrian bozkatzeko aukera izateaz gain, bilerak ere egingo dituzte auzoz auzo, horretarako. Gaur izango da aurrenekoa, 19:30etan, Latsunbeberriko auzo lokalean. ||

## ■ HERNANI UDAL EUSKALTEGIA

# Nomofobikak Biterin, gaur arratsaldean

'Sarean kateatuak' antzezlanaren eskainiko dute web-serieko protagonistek, 18:00etan. Doakoa da. Mugikorrekiko menpekotasuna izango dute hizpide, eta horri aurre egiteko terapia bat egingo dute.

ANTZERKI saioa izango da gaur arratsaldean, Biterin, Hernani-ko Udal Euskaltegiak antolatuta. Arratsaldeko 18:00etan hasita, *Sarean kateatuak* emanaldia eskainiko dute Nomofobikak taldekoek: Olatz Beobide, Belen Cruz eta Amaia Lizarralde aktoreek. Web-seriea ere badaukate, [www.nomofobikak.eus](http://www.nomofobikak.eus) web orrian, eta peluka berdeak jantzita, egiten diote aurre terapia bati, mugikorrekiko dependentzia gainditzeko.

Hain justu, hori izango dute gaurko antzezlano gaia. Ikusleekin batera egingo dute terapia: menpekotasuna zenbatekoa den neurtzeko test batekin hasi, eta erakutsiko dute nola bizi duten hori, ofizio ezberdinetako langileek, nerabeek edo adineko emakumeek, beti umore tonuan.

Doakoa izango da. ||



Umore tonuan erakutsiko dute, esaterako, nola bizi duten adineko emakumeek mugikorrekiko menpekotasuna.

## ■ HERNANI UDALA

# Udal egutegiko 13 argazkiak, aukeratuta

Hernaniko Udalak jakinarazi du, zein diren 'Hernaniko Koloreak' argazki lehiaketaren irabazleak. Abenduan zehar banatuko ditu 2020ko egutegiak Udalak, eta 4.000 ale argitaratuko dira, guztira.

AUKERATU ditu epaimahaiak, *Hernaniko Koloreak* argazki lehiaketaren irabazleak: 2020 urteko udal egutegia osatuko duten 13 argazkiak, alegia.

Honakoak dira, argazkien izenburuak eta irabazleen izenabizenak: *Emakumea ahalduntzeko artea* eta *Zinkolore*, Aurora Alesanco Osesenak; *Ilunabarra*, Nagore Ruiz de Arbulu Urreiztarena; *Hernaniko hagina*

eta *Zeruko Argia*, Jose Luis Iraola Peñarenak; *Bixtak* eta *Bosteko*, Asier Goya Etxeberriarenak; *Islada*, *forma eta kolore jolasa* eta *Zuritzen*, Agurtzane Eizmendi Zabalarenak; *Green* eta *Gorriaren gainean*, Felix Herrero de Gregoriorenak; *Harrizko zuhaitzak*, Borja Gil Fernandezena; eta *Cerezo japonés*, Maite Arrietarena.

Irabazle bakoitzak, 40 euro-

ko erosketa txartela jasoko du opari, aukeratutako argazki bakoitzeko. Berriak elkarteko dendetan erabili ahal izango dituzte, txartel horiek.

### Azaroaren hasieratik ikusgai, Biterin

Aukeratutako 13 argazkiekin, erakusketa jarriko dute Biteriko pasilloan; eta ikusgai egongo dira, azaroaren hasieratik,

abenduaurreneko aстера.

Hain justu, abenduan argitaratuko ditu 2020ko egutegiak, Udalak. Guztira, 4.000 ale inprimatuko dituzte, eta udal eraikinetan banatuko dituzte, abendu osoan zehar.

Partehartze zabala izan du, *Hernaniko Koloreak* lehiaketak: 20 egile aurkeztu dituzte beraien argazkiak; eta 97 argazki izan dira guztira. ||

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko



**GAUR** Goizean eguraldi lasaia izango dugu oraindik, laino dezterekin, baina ostarte batzuekin ere bai. Arratsaldean, berriz, lainoak ugartu eta zerua estalita geratuko da, eta euritara jo dezake iluntzean. Haizea, hegoalde-tik ipar-mendebaldera aldatuko da. **Min.13° / Max.22°**



**BIHAR** Lainotuta egongo da zerua, eta euria egingo du. Goizetik iluntzera egongo da zerua estalita, baina orduan, lainoak gutxitzen hasiko dira. Iparrmendebaldera aldatuko da haizea goizean, baina hegoaldekoa sartuko da, aldez, gau partean. **Min.15° / Max.19°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## ASTIGARRAGA ELKARBIZI TALDEA

# Bakearen aldeko euskal kultur adierazpenak, aztergai gaur

Hitzaldia eskainiko dute Eugenio Ibarzabal eta Inazio Mujika Iraola idazleek, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean. Izena eman behar zen.

GAUR egingo du beste saio bat, Elkarbizi taldeak, 2019ko programaren barruan. Eta oraingoan, jardungo dute bakearen alde egindako euskal kulturaren arloko adierazpenen inguruan: *Euskal kultura adierazpenak baketzaren aurrean*.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da saioa, Astigarragako kultur etxeko areto nagusian; eta bi idazle izango dira hizlariak: Eugenio Ibarzabal eta Inazio Mujika Iraola.

*Garaiz gabiltz* agiria egiten hartu zuen parte Ibarzabalek, 1980an. Garaiko euskal kulturaren ordezkari nabarmenak sinatu zuten agiri hura; hala nola, Barandiaranek, Mi-

'Garaiz gabiltz' agiria egiten parte hartu zuen Ibarzabalek, eta 'Isiltasuna ez da aterpe' adierazpena sinatu zuen Iraolak.

txelenak, Caro Barojak eta Chirlidak. 33 sinatzaile izan ziren, eta gogoan izan zuten «kanpotik gidatutako indarkeria, eta euskal arazoarekiko agertzen den ulertezintasuna»; baina gehien kezkatzen zituen indarkeria zen, «bertan jaio eta gure artean habia egiten duena».

Mujikak, berriz, *Isiltasuna ez da aterpe* adierazpena sina-

tu zuen 2000 urtean. Bertan, 140 euskal intelektualek zioten, bortizkeria «errotik astintzen» ari zela Euskal Herria; eta onartezina zela, «indareriak euskal gizartearen dinamika demokratikoa ordezkatu nahi izatea».

**Bi adierazpenek, garrantzia** Elkarbizik dio, «oso komenigarria» dela bi adierazpen horiek izan zuten garrantzia publikoa gogoratzea, «indareriaren aurrean euskal kulturak izan duen posizioa epaitzen denean».

Horri guztiari buruz ariko dira, gaur. Parte hartzeko, aurrez eman behar zen izena. ||

## HERNANI KANTUZ ABESBATZA



Kantuz abesbatzako kideak, Laguardiako Pilareko Ama Birjinaren kaperan, emanaldia eskaintzen.

# Laguardian kantari eta Bastidan bisitari, asteburu berezian

Arabako Errioxan izan dira Kantuz abesbatzako kideak, asteburupasa. Pilareko Ama Birjinaren kaperan kantatu zuten, «harrera ederra» jasota.

BEREZIA izan da aurreko asteburua, Kantuz abesbatzako ki-deentzat. Irteera egin zuten Arabako Errioxara, asteburupasa, «gure kantuak bertakoei eskaintzeko». Baina kantari bakarrik ez, bisitari ere aritu ziren, Laguardian eta Bastidan.

Larunbatean abiatu ziren Hernanitik, Laguardiara bide-

an. Eta bertako San Joan elizan, Pilareko Ama Birjinaren kaperan eskaini zuten emanaldia: «harrera ederra izan genuen, eta baita gogotsu kantatu ere», adierazi dute.

Eta han zeudela aprobetxatuz... «Ez genuen denborarik galdu, eta bisita egin genion herri eder horri». Hango upa-

tegi batera ere jo zuten gero, «bertako ardo goxoak probatzeko», kontatu dute.

Han pasa zuten gaua ere, eta hurrengo egunean, igandearekin, Bastidako herrira egin zuten bisita. Herria ikusi, eta bazkari eder baten bueltan borobildu zuten asteburu, etxera bueltatu aurretik. ||

## HERNANI KONTRAKANTXA GAZTETXEA

# Ikasle Jaialdia bihar, lau kontzerturekin

Kontrakantxa gaztetzearan izango da, 19:00etan hasita, Ibaetako ikasle mugimenduak antolatuta.

FESTA giroa nagusituko da bihar, Kontrakantxa gaztetzearan. Ikasle Jaialdia izango da bertan, Ibaetako ikasle mugimenduak antolatuta.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da festa, gaztetzeara irekitzearekin batera; eta musika ere izango da, Zarata Selection & Berbainde Sound taldearen eskutik.

Eta ondoren, 22:00etatik aurrera, hiru kontzertu eskainiko dituzte: Trikona Banda, Eztanda, eta Bassagain Soinu Sistema taldeek joko dute.

**Jantoki Soziala, etzi** Ostiralerako ere jarri du zita, Kontrakantxa gaztetzeara. Jantoki Soziala zabalduko dute, iluntzeko 21:00etan. ||

## ASTIGARRAGA UDALA

### Egutegiko argazki lehiaketa, gaur arte

Argazki lehiaketa jarri du martxan Astigarragako Udalak, 2020ko udal egutegia osatzeko; eta parte hartzeko, gaur da azkeneko eguna: kultur etxera pen-drive batean eramanda, edo [astigarraga.kultura@gmail.com](mailto:astigarraga.kultura@gmail.com) helbidera bidalita, izen-abizenak, herria eta telefonoa zehaztuz. Astigarraga bera izango da argazkien gaia, eta aurkeztutako argazki guztietatik, 13 aukeratuko dituzte: 12 hilabeteak eta azala. Aukeratutako argazkien egileek, diru-saria jasoko dute. ||

## HERNANI 1939AN JAIOTAKOAK

### 1939an jaiotako guztientzat, bazkaria

Hernanin jaiotakoak zein gerora herrira etorritakoak izan, bazkarirako hitzordua daukate, 1939an jaiotako guztiek. Aurrenekoz egingo dute, azaroaren 23an, 80 urte bete edo beteko dituztela ospatzeko. Suhari jatetzearan izango da, eta joateko asmoa dutenek, telefonoz deitu behar dute: 943 55 68 60 edo 643 009 433 (Pili); 943 55 26 43 edo 639 403 922 (Asun); edo 687 306 593 (Marivi). ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† RAFAELA MOREDA DIOSDADO**  
(Julián Lopezen alarguna)  
Atzo hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Clara eta Ángel Pina, Agustín eta Izaskun Santa Cruz; bilobak: Ane eta Mattia, Nagore eta Iñaki, Uxue; anai-arrebak: M<sup>a</sup> Antonia (†), José, Angelines, Isidora, Francisco; ezkon anai-arrebak: Ángel (†) eta Clara, Cesárea; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitetzela **GAUR, ASTEAZKENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2019ko urriaren 30ean**

OHARRA: Gorputza VASCONGADA EHORIZKETA TANATORIOAN (Orkolaga kalean) egongo da goizeko 11:30ak arte.

## IRAGARKI MERKEAK

- Aulki elektrikoa salgai**, 1300€. Egoera onean. Deitu: 679 152 034
- Vanessa Soodeen:** Coaching-psikologia, psikoterapia-Gestalt, Mindfulness, bakarkako terapia, bikote-terapia... Deitu: 666 197 211 [vsoodeen@gmail.com](mailto:vsoodeen@gmail.com)
- Gutxi erabilitako konpresore trifasikoa salgai**, 500 €. Deitu: 688 651 438
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)